

## **63. ALDIZKARIA - 2002ko maiatzaren 24a**

### **IRURTZUN**

#### **Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzungo Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza behin betikoz onetsirik**

Irurtzungo Udalak, 2002ko maiatzaren 3an egin osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

"Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzungo Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza hasiera batean onetsi zen 2001eko abenduaren 17ko osoko bilkuran hartu erabakiaren bidez. Jendaurrean egoteko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu gabe eta indarra duten xedapenei jarraikiz,

Erabaki da:

- 1.-Behin betikoz onestea Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzungo Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza, behar bezala eginbideturik, espedientearen atal dena.
- 2.-Delako ordenantza Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALera igortzea, argitara dadin, argitaratu ondoko hamabozgarren egun baliodunean indarra hartuko baitu".

Irurtzunen, bi mila eta biko maiatzaren seian. Alkatea, Eduardo Murugarren Frances.

#### **EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN IRURTZUNGO UDALAREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

1. artikulua. Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzungo Udalaren erregistroak administrazio izaera du eta bertan hurrengo artikulua aipatzen dituen elkarteak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen diren era eta baldintzetan.
2. art. Ordenantza hau aplikatzerakoan, eta Bikote Egonkorrendako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkarte libre eta publikoa, ezkontideenaren pareko afektibitate-harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol edo adopzio ahaidetasunik ez badute. Elkarte hori osatzen duten kideek ezin izanzen dute bertze pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu.
3. art. Bikoteek, sexu-joera kontuan izan gabe, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin aurreko artikuluan azaldutako elkartzaren bat osatzen badute.

Gutienez, elkartutako kide batek egon beharko du Irurtzongo Udalean erroldaturik, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ez ezkonduak ezta inskribatuak ere Ezkondu gabeko bikote egonkorren bertze erregistroren batean.

4. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aitzinera, haien artean ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako elkartzeetarikoa bat osatzen dutela deklaratzeko.

5. art. Ez da inskripziorik eginen bikoteko bat emantzipatu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira ere.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen. Horrelakoetan, medikuaren irizpena beharko dute, ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako elkartzeetarikoa bat osatzeko gaitasuna aitortzen diena.

Era berean, ukatu eginen da inskripzioa bikoteko bat ezkondua badago, bertze batekin bikote egonkorra osatzen badu edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.

6. art. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteak beren arteko elkartzeari buruz adierazten dituen argitasun guztiak agertarazten ahalko ditu. Hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare harremanak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aitzineko lerroaldean aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira bikoteko biak bertara azalduz.

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

7. art. Irurtzongo Udalean ordenantza honek eskatutako baldintzei jarraikiz inskribaturik dauden elkartze guztiak ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute, Udalaren eskumenekoak diren gaitetan.

8. art. Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroa Udaleko Idazkaritza Orokorraren kargu egonen da. Inskripzioak eta luzatzen diren ziurtagiriak doakoak izanen dira erabat.

9. art. Aitzineko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko Liburu Orokorra erabiliko da. Liburua orri mugigarri, zenbatu eta zigilatuz osatuko da eta irekitzeko eta ixteko eginbideak paratuko dira hasieran eta bukaeran.

10. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioak oinarrizko inskripzioaren izaera izanen du eta horren bazterrean geroago Liburu Orokorrean elkartzeari buruz egiten den bertze edozein idazpen agertaraziko da.

11. art. Erregistroak Liburu Lagungarri bat izanen du, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zenbatgarren orrialdean dauden haiekin zerikusia duten oharpenak.

12. art. Erregistroan inskribatutakoen intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko ez zaio publizitaterik emanen idazpenen edukari, salbu eta erregistroaren ardura duen funtzionarioak luzatzen dituen egiaztagiriak, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondotik.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.-Ordenantza honen berrikuspena egingen da lege aldaketarik sortzen bada gai honen inguruan.

#### I. ERANSKINA

Irurtzungo Udalean, Udal Erroldako bulegoan, halako egunean: ....., honako hauek agertu gara:

Izena: ....., jaioterria: ....., helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu), NAN zenbakia: eta

Izena: ....., jaioterria: ....., helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu), NAN zenbakia: .....

Eta honako hau azaldu nahi dugu:

Udal honetako erregistroan Ezkondu gabeko bikote egonkorren gisa inkriba gaitzateela nahi dugula, horri buruzko ordenantzaren arabera, eta horretarako,

Deklaratzen dugu:

Lehenbizi.-Aipatu Ordenantzan aurreikusitako bizikidetasuna dela-eta, gure helbidea honako hau izanen dela: ..... (oroitarazi behar zaio ..... jaun/andreari T.A.O.L.aren 15. artikuluari jarraikiz, erroldatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian).

Bigarren.-Ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere.

Hirugarren.-Gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ez eta alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunik ere.

Laugarren.-Gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik, ez eta elkartzeko inolako ezgaitasunik ere.

Bosgarren.- (Nahi dugula/ez dugula nahi) gure arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko hitzarmenak erregistroan inskribatzea.

Seigarren.-Baimena ematen dugula Irurtzongo Udal Erroldan honako datu hauek egiaztatzeko.

Eta zin egiten dugu gutako inor ez dagoela inskribatua ez Irurtzongo erregistroan ez maila eta xede bereko inongo herritako erregistroan ere.

Horrenbertzez,

Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzongo Udaleko erregistroan inskriba gaitzabela eskatzen dugu.

Sinadura: ..... Sinadura: .....

## II. ERANSKINA

Irurtzongo Herriko Etxean, halako egunean ..... honako hauek agertu gara:

Izen-abizenak: ..... N.A.N.: ..... eta

Izen-abizenak: ..... N.A.N.: .....

Eta Ezkondu gabeko bikote egonkorren Irurtzongo Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzan zehaztutakoarekin bat, adierazten dugu gure arteko bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitzat eman nahi dugula, horrelaxe inskribatuta baikaude aipatu Udalaren erregistroan.

Horrenbertzez,

Eskatzen dugu elkartzearen inskripzio hori bukatutzat edo iraungitzat jo dadila.

Sinadura: ..... Sinadura: .....